



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
19/01/14

Batzar Nagusiek, Loiuuko aireko espazioan saien presentziarengaitik sortutako arriskuen prebentzinorako ekimena onetsi dabe

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Batzordeak, Podemos Bizkaia taldearen abstentzinoagaz eta Batzarretan ordezkaritza daukien beste bost taldeen aldeko botoakaz, saien presentziak Loiuuko aireportuaren inguruan eragiten dituen arriskuen inguruko Arauz Besteko Proposamen bat onetsi dau. Ebazpenak, azterlanak egitea eta eskumenak daukiezan erakunde guztien artean lankidetzaz bultzatzea eskatzen dau, biztanleen segurtasuna bermatzeko, holango hegaztien presentziak aireko nabigazinarako daukan arriskuaren aurrean.

Proposamenak lortu dauen adostasun zabala, aurretik Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernuak eusten daben Batzarretako talde bien (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) eta oposizino indar nagusia dan EH Bilduren artean adostu dan zuzenketa-eske transakzionalaren emaitza izan da. Izan be, bakoitxak proposamen desbardin bat aurkeztu dau aurretik, saiek Bizkaiko aireportuan lurreratzen diran edo bertatik urtetan daben hegazkinen kontra jo ostean sortutako hainbat gertakari dirala eta igaz sortu zan alarmeagaz erlazioz.

Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, EH Bildu, Alderdi Popularra eta Talde Mistoaren aldeko 13 botoakaz onetsi dan Arauz Besteko Proposamenak, eskumenak dituen generako erakundeakaz batera, Loiu inguruan hegazti harrapakari handi horreen mobimenduen azterketa egiteko eskatzen deutso aireko nabigazinoaren ardura daukan AENA erakunde publikoari. Beste eskari bat be egiten jake AENARI, aireko segurtasunerako AESA agentziari eta estatu eta autonomia mailako generako administrazioei, segurtasuna bermatzeko daben neurriak hartzeko koordinazio lan eraginkorra egin daie, eta pilotuentzako komunikazioa eta denbora errealeko informazioa hobetzeko bideak ezartzea be eskatzen da. Ganera, inguruko udalek be sai kolonien presentziak daukazan arrisku potentzialen kudeaketan parte hartu beharko leukiela esaten da.

Batzarretako bost taldek modu positiboan baloratu dabe neurri horreek hartzeko eskaria. Podemos Bizkaia taldearen abstentzinoaren –lehen aldiz udalen partaidetza kontuan hartzea txalotu badau be– zergaitia, bozetoaren berbetan, daborduko existidu beharko litzateken erakundearen arteko hegaldien segurtasunaren aldeko koordinazioa eta Euzko Jaurlaritzak gai horretan daukan partaidetzaaren eta AENAK arazoaren ganean daukan eretxiaren inguruan egindako informazio eskariei ez jakela erantzun da.

Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Foru Diputatuen agerraldia

Beste alde batetik, Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Diputatuak gaur goizean egin dan Batzar Nagusietako Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Batzordearen aurrera etorri da, Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak eta Talde Mistoak, gai beraren inguruan, egin daben eskariari erantzunez: 2015eko abenduan Abanton izandako kontrol bako mozketea, jarduketan horretan babestutako espezieetako arbolak moztu eta beste kalte batzuk eragin ziralako El Cerrillo izenez ezagutzen dan lekuan. Agerraldi eskaria egin daben talde biek, foru erakundeak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

mozketea egin eban enpresari ezarritako isuna Euskadiko Justizia Epaitegi Gorenak baliobakotu izanaren ganeko azalpenak eskatu ditue.

Bere esku-hartzean, Elena Unzuetak azaldu dauenez, epaiaren errazoiak, formaren ganean goi epaitegiak hauteman dituan eskakizun batzuk ez beteteen dagoz, eta esan dau penagarria dala formeagaz erlazionautako akats horreek dirala eta, ezinezkoa izatea “ingurumenagaz erlazionautako ez arau hauste bat bakarrik, hainbat baino” zigortzea. Esan dau, baita be, foru erakundeak informazino espedientea zabaldu dauela, akatsa non gertau dan argitzeko. Bere berbetan, akats hori “penagarria” izan da. Baina momentu guztietan defendidu dau egindako beharra (148 orrialdeko txosten zehatza, bere Sailak bultzatuta) eta, gehitu dau, “dana dala, mozketearen ardurea daukan enpresak, 52.000 euroko isuna ez ordaintzea lortu dauen arren, bere gain hartu dauela ingurunea lehengoratzeko beharren ardurea, ia 67.000 euroren truke”.

Grumeraneko mendiak eta Karrantzako ur hornidurea

Gaur goizean egin dan Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko batzordearen eguneko gai zerrendako generako puntuetan baztertu egin dira oposizino taldeen hainbat ekimen, Grumeraneko mendien ordenamendu planari, Karrantzako ur hornidurari, edo Urdaibai Bird Centerren meteorologia estazinoa barrero ezarteari buruzkoak, hurrenez hurren.

Lehenengo kasuan Batzarretako EH Bildu taldea izan da Meatzaldeko aisiarako gune ezagun horren ganeko Arauz Besteko proposamen bi aurkeztu dituan. Lehenengoan, Ordenamendu Plan bat idazteko eskatzen jakon Bizkaiko Foru Aldundiari, “mendiaren erabilera guztiak jaso, antolatuta eta bateragarri egingo dituan”, administrazinoen, abeltzaintza sektorearen, kirol eta aisia taldeen, herritarren alkarten eta leku hori erabilten daben generako taldeen partaidetzeagaz. Proposamenaren alde Talde Mistoia eta Podemos Bizkaia baino ez dira agertu, eta generako taldeek kontrako botoa emon dabe. Gobernu taldeak esan dau ez dala erabilera publikoko mendia, ondarekoa baino. Hori dala eta, Foru Aldundiak ez dauka zertan Ordenazino Planik aurkeztu behar.

EH Bildu taldeak Grumeraneko mendien inguruan aurkeztu dauen bigarren ekimena Arauz Besteko beste proposamen batean zehaztu da. Oraingo honetan, 2006an foru erakundearen eta bertako abeltzaintza sektorearen artean lortu zan eta Zugaztietako goikaldean belardiak sortzea eta abereak lekuz aldatzea jasoten eban akordioa osorik betetea eta martxan jartea eskatzen zan. Proposamenak aurreko puntuaren aldeko boto berberak lortu ditu, eta ondorioz, ez da onetsi, aldeko 5 boto eta kontrako 9 euki ditualako. Oraingo honetan, ekimenari ezezkoa emoteko errazoiak, Foru Aldundiak akordioaren bere parte bete dauela eta abereen leku aldatzea ez dagola bere eskumenen barruan izan da.

Karrantzako ur hornidurea –Bizkaiko Batzar Nagusietan hainbat aldiz eztabaidatu dan kontua– EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek batera aurkeztu daben ekimenaren xedea izan da. Talde biek erregistrau daben Arauz Besteko Proposamenean, Karrantzan egingo dan esnekien lantegirako ur hoditeria zuzenaren proiektua gauzatu daiela eskatzen jako Bizkaiko Foru Aldundiari. Industria proiektu horrek udalerriarentzat daukan garrantziaren inguruan dagon adostasunean oinarrituta, oraingo honetan, eztabaidea udalerrri hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzearen inguruan zentrau da, izan be, Udaleko Osokoak 2016an onetsi eban arren, oraindino ez da gauzatu. Proposamena ez da onetsi, proposamena aurkeztu daben taldeen aldeko 4 botoak eta Batzarretako generakoen kontrako 10 boto jaso ditualako.

Gaur goizean Batzar Nagusietako Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko batzordean landu dan azkenengo gaia, Talde Mistoak Urdaibai Bird Centerretik irrati-zunda eta atmosferara zunda-



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

globoak botateko zerbitzua berrezartearen ingurukoa izan da. Ekimen hori 2012an jarri eban martxan Eusko Jaurlaritzak, baina gero eten egin zan. Podemos Bizkaiaren abstentzinoagaz (2 boto), Arauz Besteko Proposamenak EH Bilduren (2) eta Alderdi Popularraren (1) aldeko botoak jaso ditu, baina azkenean ez da onartu, Euzko Abertzaleak (6) eta Euskal Sozialistak (2) taldeek kontra botau dabelako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
14/01/19

Las Juntas Generales aprueban una iniciativa para la prevención de riesgos derivados de la presencia de buitres en el espacio aéreo de Loiu

La Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana-con la única abstención de Podemos Bizkaia y el apoyo de los otros cinco grupos políticos con representación en la Cámara- una Proposición No de Norma en torno a los riesgos que comporta la presencia de buitres en el entorno del aeropuerto de Loiu. La resolución aboga por la elaboración de estudios y la colaboración entre todas las instituciones competentes de cara a garantizar la seguridad de la población frente al peligro que representa la presencia de estas aves para la navegación aérea.

El amplio consenso logrado por la propuesta ha sido el resultado de una enmienda transaccional consensuada previamente entre los dos grupos junteros que sustentan el Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) y la principal formación en la oposición (EH Bildu), que habían registrado dos propuestas diferentes en relación con la alarma causada el año pasado por varios incidentes derivados del choque de buitres con aeronaves que despegaban o aterrizaban desde el aeropuerto vizcaíno.

La Proposición No de Norma, aprobada con los 13 votos a favor de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, EH Bildu, Partido Popular y Grupo Mixto, insta al ente público responsable de la navegación aérea AENA, en colaboración con el resto de instituciones competentes, a realizar un análisis de los movimientos de estas grandes rapaces en el entorno de Loiu. Asimismo, se insta a AENA, a la agencia de seguridad aérea AESA y al resto de administraciones estatales y autonómicas a una coordinación eficaz para adoptar medidas que garanticen la seguridad, y se solicita el establecimiento de canales de comunicación y mejoras en la información en tiempo real para los pilotos. También se aboga por la participación de los ayuntamientos de la zona en la gestión de los potenciales riesgos que conlleva la presencia de colonias de buitres.

Cinco de los grupos junteros han valorado positivamente la adopción de estas medidas, mientras que la abstención de Podemos Bizkaia ha sido justificada –aún alabando la novedosa participación de los ayuntamientos– por su portavoz en el hecho de que la coordinación a favor de la seguridad de los vuelos entre las distintas instituciones que ya debería existir, y en la falta de respuesta a varias de sus solicitudes de información en torno a la participación del Gobierno Vasco y a la opinión de AENA en torno al problema

Comparecencia de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural

Por otra parte, la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural celebrada esta mañana ha contado con la presencia de la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, que ha comparecido a solicitud del Grupo Mixto y de Podemos Bizkaia en torno a un mismo asunto: la tala incontrolada sucedida en Abanto en diciembre de 2015, que incluyó arbolado de especies protegidas y otros daños en la zona conocida como El Cerrillo. Los dos grupos solicitantes exigían explicaciones acerca de la anulación por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

multa impuesta por el ente foral a la empresa responsable de la tala.

En su intervención, Elena Unzueta ha explicado las razones del veredicto en el incumplimiento de algunos requisitos formales observados por el alto tribunal, y ha lamentado que estos fallos de forma hayan impedido sancionar “no una, sino varias infracciones medioambientales”. Ha señalado también que el ente foral ha incoado un expediente informativo para dilucidar dónde se ha registrado el error, que ha calificado de “desafortunado”. Pero ha defendido en todo caso la labor realizada (un detallado informe de 148 folios de extensión a iniciativa de su Departamento), y ha añadido que “en todo caso la empresa responsable de la tala, aunque haya evitado el pago de una multa de 52.000 euros, se ha hecho responsable de los trabajos de restauración en la zona por un montante de casi 67.000 euros”.

Montes de Triano y abastecimiento de agua en Karrantza

El resto de los puntos del orden del día de la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural celebrada esta mañana se han saldado con el rechazo a varias iniciativas de los grupos de la oposición, referidas al Plan de ordenación de los Montes de Triano, el abastecimiento de aguas en Karrantza o el restablecimiento de una estación meteorológica en Urdaibai Bird Center, respectivamente.

En el primer caso, ha sido el grupo juntero de EH Bildu el que ha presentado sendas Proposiciones No de Norma en torno a esta popular área de esparcimiento en la Zona Minera. En la primera se pedía instar a la Diputación Foral de Bizkaia a redactar un Plan de Ordenación en el que “se recojan, ordenen y compatibilicen los diferentes usos del monte”, con participación de administraciones, sector ganadero, grupos deportivos y de ocio, asociaciones vecinales y demás colectivos que hagan algún uso de este espacio. La propuesta solo ha encontrado el apoyo de los grupos Mixto y Podemos Bizkaia, y el rechazo del resto. El equipo de gobierno ha argumentado que no se trata de un monte de utilidad pública, sino patrimonial, por lo que la Diputación Foral no está obligada a presentar el Plan de Ordenación.

La segunda iniciativa de EH Bildu en torno a Triano se ha concretado en otra Proposición No de Norma, que instaba en este caso a la Diputación Foral de Bizkaia al cumplimiento íntegro y puesta en marcha del acuerdo alcanzado en 2006 entre la institución foral y el sector ganadero local, que incluía la creación de pastizales y el traslado de las reses a la zona alta de La Arboleda. La propuesta ha logrado los mismos apoyos que la anterior, por lo que ha sido rechazada con cinco votos a favor y 9 en contra. En esta ocasión, los argumentos para el rechazo de la iniciativa se han basado en que la Diputación Foral ha cumplido su parte del acuerdo, y en que el traslado del ganado no es de su competencia.

El abastecimiento de aguas en Karrantza –cuestión debatida en reiteradas ocasiones en las Juntas generales de Bizkaia– ha sido objeto de una iniciativa conjunta de EH Bildu y Podemos Bizkaia, que habían registrado una Proposición No de Norma al objeto de que la Diputación Foral de Bizkaia lleve a cabo el proyecto previsto de conducción directa de agua a la futura planta de lácteos de Karrantza. Partiendo de un consenso en torno a la importancia de este proyecto industrial para el municipio, el debate se ha centrado en este caso en torno a la integración de esta localidad al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, aprobada por el Pleno municipal en 2016 y aún no culminada. La propuesta ha quedado rechazada con los 4 votos a favor de los grupos proponentes y los 10 en contra del resto de la Cámara.

El último de los puntos tratados esta mañana por la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales de Bizkaia se ha referido a una iniciativa del Grupo Mixto de cara a



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

reactivar el servicio de radio-sondeo y lanzamiento de globos sonda meteorológicos desde el Urdaibai Bird Center, una iniciativa puesta en marcha por el Gobierno Vasco en 2012 y posteriormente interrumpida. Con la abstención de Podemos Bizkaia (2 votos), la Proposición No de Norma ha recabado el apoyo de EH Bildu (2) y Partido Popular (1), pero ha sido rechazada por el voto negativo de Nacionalistas Vascos (6) y Socialistas Vascos (2).